

## **Afganistan: giza eskubideak**

Hogei urte igaro ondoren eta Kabul hartu eta gero, talibanek euren garaipena aldarrikatu dute eta berriz ere boterea lortu dute Afganistanen, gerra krudel baten ondorio den boterea. Une hauetan, AEBko tropak herrialdetik erretiratu direnetik, gertaerak azkartu egin dira.

Afganistanek bizi duen egoera dramatiko da eta administrazio guztien premiazko esku-hartzea behar du, biztanleria zibilaren eskubideak eta babesak bermatzeko, bereziki emakumeen eta haurren moduan larriki mehatxatuta dauden taldeena.

Giza Eskubideen aurka egindako eraso guztiak gaitzesten ditugu eta Afganistango agintari berriei nazioarteko lege humanitarioak zorrotz errespetatzeko eta babesteko eskatzen diegu, bai eta herritar guztiek eskubideak eta askatasunak erabiltzeko izan behar duten eskubidea ere.

Nazioarteko komunitate osoari dei egiten diogu irmotasunez eta batasunez joka dezan mehatxu terrorista globalari aurre egiteko orduan, herrialde hori erakunde terroristen babesleku bihurtu ez dadin edo nazioarteko terrorismoaren plataforma gisa erabil ez dezaten, eta oinarritzko giza eskubide guztiak errespetatzen direla bermatzeko.

Nazio Batuei dei egiten diegu, baina baita gainerako herrialdeei eta, bereziki, Europar Batasunari ere, giza balio unibertsalak defenda ditzaten eta egoerak eskatzen duen mailan egon daitezten, biztanleria zibilar laguntza humanitarioa emanez, tokian bertan eragile humanitarioen presentzia eta parte-hartzea ziurtatuz eta etorkizun itxaropentsuago berri baten bila euren herrialdetik aske atera nahi duten Afganistango errefuxiatuen nazioarteko harrera erraztuz.

Horregatik guztiagatik, Galdakako Udalak:

- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio batetik, Jaurlaritzak dituen baliabide propioetako plazak Gobernu Zentralari eskaintzea nazioarteko babesak eskatzen duten pertsonentzat, eta bestetik, Gobernu Zentralak nazioarteko babesak eskatzen dutenei harrera egiteko dituen plaza libreak erabiltzea.

- Dei egiten die Gobernuari eta EBri beharrezko neurri guztiak hartzera, eta ez ditzatela soilik atzerriko estatuarekin lankidetzan aritu diren pertsonak ebakatu baizik eta ahalegin berezia egin dezaten Afganistango gizartearen eraldatzeko lan egin duten emakume eta gizonen ebakuzio ziurtatzeko, intelektualetatik eta kazetaritza gizarte zibileko aktibistetara eta giza eskubideen defendatzaileetara.

- Konpromezua hartzea migratzaile eta errefuxiatuak unibertsaltasun baldintzetan hartzen direla bermatzeko lan egiteko, giza eskubideen eta asilo eskubidearen arloko nazioarteko printzipio eta itunetan ezartzen den bezala eta inor ez dadila herri horretara itzulia izan bere nahiaren kontra.

- Gobernu Zentralari eskatzen diogu Euskadin bizi diren afganiarrekiko elkarrizketa indartzea, senitartekoen datuak jaso ahal izateko eta familiak berriz elkartzeko.

- Afganistango emakume eta kolektibo ahulenek giza eskubideen arloan izan dezaketen atzerakadari arreta berezia eskaintzea eskatzen dugu, harrera erraztuz, hala eskatuz gero.

- Gainean dugun krisi humanitarioaren aurrean, Afganistango egoerak larriagotua, inoiz baino premiazkoagoa da migrazio-fluxuak humanizatzea eta igarobide seguruak ahalbidetzea. Horretarako, korridore humanitarioak eskatzen ditugu, iheslari guztientzat ibilbide seguruak bermatzeko, jazarpenaren, gerraren edo giza eskubideen beste edozein urraketa onduz beren herrialdeak utzi behar dituzten kasuetan.

- Aurreko guztiaren ondorioz, gure udalerriaren ekintza gidatzen duten balioak defendatzeko konpromisoaren erakusgarri, berretsi egiten dugu Galdakao Errefuxiatuekiko Hiri Solidario izendatzea, udal honek eskura dituen baliabideak horretara jarritz.

Galdakao, 2021eko irailaren 30ean

## **Afganistan: Derechos humanos**

Veinte años después y tras la toma de Kabul, los talibanes han proclamado su victoria y han regresado al poder en Afganistán, producto de una guerra cruenta, que ha visto acelerados sus acontecimientos a partir de la retirada del país de las tropas de EE.UU.

La dramática situación que vive Afganistán requiere de una intervención urgente de todas las Administraciones con el fin de garantizar los derechos y la protección de su población civil, particularmente los grupos que se encuentran gravemente amenazados como mujeres y niñas y niños, entre otros.

Condenamos todos los ataques a los Derechos Humanos perpetrados y demandamos a las nuevas autoridades en Afganistán el máximo respeto y protección de las leyes humanitarias internacionales, así como el ejercicio de los derechos y libertades por parte de todos sus ciudadanos.

Hacemos un llamamiento a toda la comunidad internacional para que actúe con firmeza y unidad, a la hora de combatir la amenaza terrorista global, de evitar que dicho país se convierta en refugio de organizaciones terroristas o se utilice como plataforma del terrorismo internacional, y de garantizar que se respeten todos los derechos humanos básicos.

Apelamos a las Naciones Unidas, pero también al resto de países y particularmente a la Unión Europea, para que defiendan los valores humanos universales y estén a la altura de las circunstancias prestando asistencia y ayuda humanitaria a la población civil, asegurando la presencia y participación de actores humanitarios en el terreno, y facilitando la acogida internacional de todas aquellas personas refugiadas de Afganistán que quieran salir libremente de su país, en busca de un nuevo futuro más esperanzador.

Por todo ello el Ayuntamiento de Galdakao:

- Insta a los diferentes gobiernos a evacuar no solo a aquellas personas que han colaborado con las autoridades extranjeras, sino a hacer un esfuerzo especial para asegurar la evacuación de mujeres y hombres que han trabajado por transformar la sociedad afgana, desde los intelectuales y periodistas a los activistas de la sociedad civil y defensoras de los derechos humanos mediante un compromiso responsable orientado a la construcción de sociedades inclusivas.

- Se comprometa a trabajar para garantizar la acogida de personas migrantes y refugiadas en condiciones de universalidad, tal y como se establecen en los principios y tratados internacionales en materia de derechos humanos y derecho de asilo y que nadie sea devuelto a ese país en contra de su voluntad.

- Solicitamos al Gobierno Central reforzar la interlocución con los residentes en Euskadi para facilitar la recepción de los datos de sus familiares para impulsar los reagrupamientos familiares.

-Instamos a prestar especial atención al posible retroceso en materia de derechos humanos de las mujeres y colectivos más vulnerables en Afganistán, facilitando su acogida en caso de que ésta sea solicitada.

-Ante la crisis humanitaria que estamos viviendo, agravada por la situación de Afganistán, es más urgente que nunca humanizar los flujos migratorios y hacer posibles tránsitos seguros. Para ello, reclamamos corredores humanitarios que garanticen rutas seguras para todas esas personas refugiadas que se ven obligadas a tener que abandonar sus países por cuestión de persecución, guerra o cualquier otra vulneración de derechos humanos.

-En consecuencia de todo lo anterior, como muestra del compromiso en la defensa de los valores que guían la acción de nuestro municipio, reiteramos la declaración de Galdakao como Ciudad Solidaria con las Personas Refugiadas, poniendo para ello a disposición de las personas refugiadas los medios de que este municipio pueda disponer.

Galdakao, 30 de septiembre de 2021

## **Ertzaintza eta Galdakako Udaltzaingoari babesa**

COVID-19k sortutako pandemiari aurre egiteko neurriak indarrean egonda, irailaren 10etik 12ra bitarteko gauetan, ostalaritza itxi ondoren Galdakako hainbat gunetan, Gipuzkoa Kalea, Santi Brouard, Iturrondo eta inguruko beste kale batzuetan besteak beste, sortutako pilaketek Ertzaintza eta Galdakako Udaltzaingoa esku hartzera behartu zuten.

Esku hartzean emandako gomendioak alde batera utzita, Ertzaintzak eta Galdakako Udaltzaingoa, tamalez, erasoak jasan zituzten jarrer gizabidebako, erantzukizun bako eta gaitzesgarria izan zutenen aldetik hiri-altzarietan kalte materialak sortuz.

Denok daukagun aisialdi eskubidea bermatzeko, ezinbestekoa dugu elkar zaintzan jarraitzea. Egoerak horrela eskatzen duelako eta denok disfrutatu ahal izateko, jarrai dezagun orain arte bezala, elkar zaintzen eta Galdakao zaintzen.

Galdakoztar guztiak zoriondu nahi ditugu, ekimen kulturalak elkarbizitzan eta egoerak eskatu bezala garatu eta disfrutatu direlako.

Horregatik guztiarengatik;

- Elkartasuna eta babesa adierazten diegu bai Ertzaintza zein Galdakako Udaltzaingoari, jarrera gizabidebako, erantzukizunbako eta gaitzesgarria izan zutenen aldetik jasandako erasoen aurrean.

**Galdakao, 2021eko irailaren 30**

## **Apoyo a la Ertzaintza y Policía Municipal de Galdakao**

Estando vigentes las medidas sanitarias establecidas en la lucha por combatir la Pandemia generada por el COVID-19 y, tras generarse aglomeraciones en diversas zonas de Galdakao -Gipuzkoa Kalea, Santi Brouard, Iturrondo y otras calles aledañas- tras el cierre de la hostelería las pasadas madrugadas del 10 al 12 de septiembre, la Ertzaintza y a la Policía Municipal de Galdakao se vieron obligadas a intervenir, sufriendo ataques por grupos de personas que hicieron caso omiso a las recomendaciones, y lejos de cumplir con responsabilidad, lamentablemente mostraron una actitud reprobable e incívica enfrentándose con lanzamiento de objetos a la Ertzaintza y a la Policía Municipal; generando daños materiales en mobiliario urbano (contenedores, jardineras, papeleras, bancos..).

Para garantizar el derecho de ocio que todos tenemos, tenemos que seguir cuidándonos mutuamente. Queremos felicitar a todos los galdakoztarras porque las iniciativas culturales se han desarrollado y disfrutado en la convivencia y en la situación requerida.

Por todo ello,

- Manifestamos nuestra solidaridad y apoyo a la Ertzaintza y a la Policía Municipal de Galdakao ante los ataques sufridos por grupos de personas que lamentablemente mostraron una actitud nada responsable, incívica y reprobable.

**Galdakao, 30 de septiembre de 2021**